

NATXO URKIJO jauna
LAUDIOKO UDAL EUSKALTEGIA

Gasteizen, 2000ko uztailaren 19an

Jesus Mari Makatzaga

Agur, Urkijo jauna:

Zure gutun bat jaso dugu pare bat zalantzari buruz galdera eginez; lehendabizikoa zenbatzailedun sintagmekin aditzak egin behar duen numero komuztaduraz. Honi buruz diozu singularreko komuztadura dela zuretzat hobesketkoa edo gehiagotan erabili beharrekoa behintzat. Kontua da bi aukerak zilegi direla, bai singularrekoa eta bai pluralekoa:

Cavaillé-Coll organo ugari egin ziren

Cavaillé-Coll organo ugari egin zen

Zenbakiak direnean, ordea, askoz ere arruntagoa da pluraleko komuztadura, singularrekoa ere ontzat eman behar den arren:

Bi enpresa sortu ziren

Bi enpresa sortu zen (gutxiagotan)

Honi buruzko informazio gehiago izan dezazun, Gramatika batzordearen *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I* liburuan (1985), 205-208 orrialdeetan, aipatzen da zenbatzaileekiko komuztaduraren auzi hau. Baduzu beste artikulu bat ere puntu hau aztertzen duena: Karmele Rotaetxe “Numeral eta aditzen arteko konkordantziak”, *Fontes Linguae Vasconum* 32, 1979 (259-267 orr.).

Bigarren galdera ere aditzaren ingurukoa da: subjuntibo, ahalera eta inperatiboan partizipiodun formak euskara batukoak diren galdetzen da, eta ea Euskaltzaindiak “orain arteko araua” aldatu egin duen, aditzoinaz gain partizipioa ere zilegizat jotz.

Kontua da puntu horri buruz Euskaltzaindiak ez duela orain arte araurik eman; beraz, *ibil naiteke* nahiz *ibili naiteke*, biak erabil daitezke. Auzi honetaz Euskaltzaindiak erabaki duen gauza bakarra da aditzoina (*ibil*) erabili nahi baldin badugu, zein forma izan behar duen horrek; eta ez besterik. Ikus, horretarako, Euskaltzaindiaren araugintza berriko 28. Araua, *Aditzoinen forma* izenburua duena.

Zure galderei erantzun egokia eman diogulakoan, hurrengo batera arte.